



EUSKO JAURLARITZAK BERE ERANTZUNKIZUNAK BETE DITZALA!!!

Osasun Sailean beharrezkoak diren baliabideak jar ditzala ikastetxeen lan karga gutxituz, ikasleak hezkuntza presentzialera ahalik eta arinen bueltatzea ahalbidetuz eta kontziliaziorako bideak zabalduz.

Duela gutxi, Osakidetza COVID-19aren inguruko protokoloan aldaketa batzuk txertatu dituela jakin genuen medioen bitartez. Jarduteko modu berri horren arabera, arakatzailleek ez dute deirik egingo, kudeaketa hori ikastetxeen gain geratuko da eta gelako ikasle guztiak konfinatu beharko dira, horrek guztiak suposatzen duenarekin.

Pandemiaren kudeaketa lehen momentutik egon da hutsunez eta zentzugabekeriak jositako eta oraingoan ere horrela behar zuen. Eusko Jaurlaritzak osasunean murrizketak egiten ari da etengabe, pandemia hasi zenean baino arakatzaille gutxiago dago eta ikastetxeak lankargaz gainezka eta estresak jota ditugun garai honetan, hezkuntzako langileak osasungile lanak egitera behartu nahi ditu.

Eta nola ez, protokolo berri hau ere hasi da bere lehen fruituak ematen eta espero genezakeen moduan, ez da batere eraginkorra izaten ari. Ehunaka ikastalde oso daude itxialdian, ikastetxeetako zuzendaritzak - duten informazio apurra zuzen jarraituz - horrela eskatuta, Osakidetza jaso behar duten SMS famatuaren zain. Zer gertatzen da? PCR froga egiteko hitzordua emango dien mezu hori ez dela iristen eta jada ikasle asko direla bi, hiru, lau... egun daramatzatenak konfinatuta.

Hori guztia nahikoa ez balitz, Eusko Jaurlaritzak *Hezkuntza langileen higadura konpentsatzeko zaintza tresnak* izeneko material bat argitaratu berri du. Zer eta, hezkuntza komunitatea zaintzeko krisi eta ziurgabetasun garaietan sortutako higadura konpentsatuz, azken garai honetan erakutsitako lana eta inplikazioa eskertzeko eta estresa bizitasun bihurtzeko hainbat baliabide eskaintzeko.

Eusko Jaurlaritzak benetan gure ondobeharraz kezkatuta balego, gida gutxiago eta krisia kudeatzeko baliabide gehiago jarriko lituzke, coach-arena egiten ibili gabe.

STEILASetik Osasun Sailean beharrezkoak diren baliabideak jartzea, hezkuntza langileen kontziliazioa ahalbidetzea eta ikasleen hezkuntza presentziala ahalik eta arinen ahalbideratuko dituen neurriak ezartzea exijitzen diogu Eusko Jaurlaritzari.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus